

ANALOGIA TIPILA

Erving Goffman-en Azterbide Dramaturgikoa

Kepa Fernandez de Larrinoa
Antropologia Sozialeko Irakaslea

Artikulu honek E. Goffman-en azterbide dramaturgikoaz dihardu. Bizimodu soziala ikasterakoan azterlari honek darabilen "taulatuaren" hiztegiak ari da. Halaber, halako jarreratik datozen ondorioak agertarazi nahi ditu. Hark idatzitako bi liburu behatzen dira hemen: *The Presentation of Self in Everyday Life* (1959) eta *Frame Analysis* (1974). Aurreneko idazlanak, bestalde, "egoeren esanguretan" barrena abiatzen da.

Teatroko errepresentazioari heltzen dio txosten honetan erabiltzen den perspektibak. Darizkion printzipioak dramaturgikoak dira (Goffman 1959:xi)

Sarrera

Chicago-ko Eskolakoa izanik, taldekideekin eta berauek idatziarekin harremandua ikasten ohi da Erving Goffman-en (1922-1982) lan soziologikoa. Chicago-ko Eskolakoek "elkarrekintza sinbolikoa" deritzan eskola soziologikoaren barruan ikertu zituzten giza bizitzaren moldeak eta portabideak. Goffman-en ikerlanak, haatik, badu bere nortasun berezkoa, beste taldekiderengandik bereiztua, eta beraz Zientzia Sozialetan status propioa duena. Halarik ere, Goffman-en izkribuak polemiko eta eztabaidagarriak dira. Alde batetik, ikasi dituen gaiak. Bestetik, erabili dituen azterbideak.

Lauer-ek eta Handel-ek (1977), esate baterako, modu honetara juzkatu dute Goffman-en lana. Haren alde zera dago: (I) soziologiaz, antropologiaz eta psikiatriaz dauzkan ezaguera zabalak eta sakonak: eta (II) bideratu dituen adierazpen eta argipenen orijinaltasuna. Haren aurka, ordea, honakoak dauzka: (I) hiztegi zientifikoa eta esapide berrien erabilera abusuzkoa orduan erabiltzen zirenak oraindik baliagarri zirenean; eta (II) bere obran zehar etengabe ari da birformulatzen alde zurretik emandako definizioak.

Agerraldi sozialak eta haien bornuak

"Buruz buruko elkarrekintzetara" zuzentzen da Goffman-en idazgaia, beren egitura eta bilakaera edo prozesua, bitzuak, hain zuzen ere. Haren lanaren abiapuntu eta helmuga hau da: buruz buruko elkarrekintzek berezko azterlana eskatzen dute eta erantzuna eman behar zaie. Goffman-engana hurbilduz gero, bereziki *The Presentation of Everyday Life*-n eta *Frame Analysis*-ean barrena azaltzen diren ideietara, bi aztergai aurkitzen ditugu: (I) buruz buruko elkarrekintza sozial bakoitzeko egoeraren definizioa edo argipena; eta (II) nola sortarazten diren egoera horren esperientzia eta esangura.

Norberaren Aurkezpena

Goffman-i darraikionez, topaketa sozialak suertatzen direnean, "norberaren aurkezpena" dago jokoan. Metafora dramaturgiko edo teatrozko baten bidea abiatzen du Goffman-ek norberaren aurkezpen hau, zeinaren bitartez zera ikasi nahi bait du: norbakoitzak modu zehatz batez bere burua agertaraztekotan aukeratzen dituen teknikak.

Norberaren aurkezpena zela eta, aitortzekoa da, horregatiko, bere bizitzaren azken urteetan ez zuela dramazko metafora hau berriro erabili. Areago, *Frame Analysis* delakoan eginiko aipu batean berehala zuzentzen du aurreneko jarrera: "mundu osoa ez da taulatua" (1.or.). Hau da, Goffman-

-ek baztertu du halako analogia eta saiatu da bete-beteaz zergatia azaltzen.

Ikus dezagun zein zabal hartu zuen antzezkizunaren arloa Goffman-ek bere aurreneko idazlanetan:

"antzezkizuna" hitza modu honetara erabili dut, hau da, iharduera osoa, aldialdi batean barrena soegile talde baten aurrean suertatzen dena eta haiengana nolabaiteko eragina dakarrena (1959:22)

Beraz, topaketa sozialetan zera dugu: buruz buruko elkarrekintzak, norberak bere burua aurkezteko erabiltzen dituen teknikak bideratzen dituztenak.

Egoeraren Esangura

Norberaren aurkezpenaz gain bada gehiagorik, hots, elkarrekintza definitua dator. Beste modu batez esanda, behatu ditugun gertakizunak ulertzen uzten digun bornu bat dago. Goffman-en lana (1974), oraingoan, oinarritzko zenbait bornu eta ulerpide isolatzea da. Liburuan zehar adieraziko du nola sortarazten duten informazio beharrezkoa. Goffman-en eritziz, gizabanakoen esperientziaren edo errealitatearen erakuntza "zer gabilta hemen?" galderari botatzen zaion erantzun zehatzetik dator.

Egoeraren definizioa esperientziaren erakuntza da, eta biok "ekintzaren" noziora zeharo lotuta daude¹. Goffman-en soziologian, ekintza (Goffman 1959) ezezik, "kognizioa" (Goffman 1974) ere

garrantzitsua da. Alde batetik, erran bezala, gertakizun baten esangura gertakizunari erantsitako bornutik dator. Bestetik, bornua ez da kreatua edo asmatua, 1959.eko liburuan zehar iradoki ahal zen bezala, baizik eta "aurkitua", egoera gertatu aurretik existitzen du eta (ikus Lauer eta Handel 1977:413).

Honela, kasu honetan ere jauzi bat ikus dezakegu Goffman-en obran, 1959.eko liburuan azaldutako ideietatik 1974.ekoetarako. *The Presentation of Self in Everyday Life*-n gizabanakoek berek definitzen zutela egoera, eta beraz berek kreatzen zutela esangura, zioen. *Frame Analysis*-ean, ordea, egoeraren esangura alde aurretik emanda dago. Gizabanakoen arazoa zera da: aplikatzen ari den bornua zein den jakitea.

Gertakizun batek, bestalde, esangura ezberdinak izan ditzake, segun eta zein den erabiltzen ari den bornua. "Giltzapena" da gertakizun baten oinarritzko esangura beste modu batez ulertarazten diguna.

Elkarrekintzan ari diren jendeek gertakizun sozialei esangura ematen dieten prozesuan dugu esperientziaren erakuntza. Hortaz, normek eta lege sozialek aurreratzen dute signifikantza soziala. Alegia, araudi sozialak lortzen du pertsonen gertakizunak ulertzea. Beronek dakar Goffman zera baieztatzen: portaerak adierazpideak dira. Adierazpideak ezezik adierazpenak ere bai.

Hau dela eta, bornuak interpretabideak eskeintzen dizkiete parte hartzaileei, zeinak bideratzen bait du egoera edo ekitaldi horretarako jarrerarik egokiena zein den. Gako-hitza bilatu dugu:"esangura", hain zuzen ere, bi esangura mota daudelarik. Alde batetik, ekintza berez esanguratsua da, esapide da eta. Bestetik, ekintza berberak esangura ezberdina jasotzen du, ekitaldian zein bornutatik barrena abiatua denaren arabera. Ondorioz, bi esangura, ekintzari dagokiona, araudi sozialarena alegia, eta bornuari dariona, hots, kognizioarena.

Kognizioa, orduan, interpretatzearen zoria da, modu batez edo bestez gertakizunak ulertzea, hautatzen den bornuaren arabera. Orobat, Goffman-en esanguraren teoria, R.S. Perinbanayagam-ek esan duenez, G.H. Mead-enaren berridazketa da. Mead-ek landutako ekitaldi sozialaren bertsioa eta Wittgenstein-en esanguraren doktrina (Perinbanayagam 1985:69)

Goffman-en "antzerkia-bizitza soziala" analogia

Bizitza soziala antzerkiaren metaforaren bidez azaltzea, luze ezagutua bada ere literaturan (ikus Elizabeth eta Tom Burns 1973:23), jarrera nahiko berria da zientzia sozialetan. Oso garrantzitsua da analogia hau, azken urteotako psikologiaren, soziologiaren, antropologiaren eta dramaren ikasketan zehar ikus dezakegunez. Hala ere, azterlari denek ez dute modu berdinez

elkartzen bizitza soziala eta teatroa. Goffman-ek berak ere, lehen esan bezala, aldatu egin du bere eritzia. Gauzak honela izanik, komenigarri litzaiguke beste ikertzailek bizitza sozialaren eta antzerkiaren arteko harremanak nola ikasi dituzten begiratzea.

Ekintza Soziala eta Komunikazioa

Zientzia sozialak eginiko bizitza/antzerkia elkartze-prozesu honetan, Kenneth Burke-ren lana abiapuntu da. Hala aitortzen dute, esaterako, Perinbanayagam-ek (1985), Gordon-ek (1976), Hare-k (1985), Burns-ek (1973), Geertz-ek (1983) eta McAloon-ek (1982). Esanguratsua da, aldiz, Milton Singer eta Victor Turner azterlari ospetsuek behin ere ez dutela Kenneth Burke-ren eragina aipatzen (ikus McAloon 1984:2).

Burke-k azterketa literarioaz eta testu filosofikoez dihardu. Hark Goffman-engan daukan eragina handia da. McAllon-ek modu honetara jartzen ditu bi ikertzaile hauen arteko harremanak: "Erving Goffman Kenneth Burke-ren ordezkoa da zientzia sozialetan, neurri handi batean" (McAloon 1984:5)

Goffman-en lana ulertzeko, orduan, Burke-k egindako "ekintzaren" eta "higiduraren" arteko bereizketari egin behar diogu kasu (ikus Gordon 1976:XVII-XVIII). Burke-k dioenez, "izadiaren motiboetatik" alde eginez eta esangura sinbolikoei esker, gizona da bere "ekintzaren" egitura kontrolatu

ahal duen izaki bakarra. Hau da, gizaki kontzienteen eremuaren barruan kokatzekoak dira ekintzak. Gauzak "higitu" egiten dira, gizakiek "ihardun" dihardute.

Areago, Burke-k komunikazioaren arloan ipintzen du giza iharduera. Hala eginez, "dramatikotasuna" sartzen du bizimoduaren ikasketetara. Erreferentzi puntu dramatiko honek paradigma berri bat dakar. Higidura baino ez bait dute atzematen, aurreneko metafora eta analogia fisiko-organikoak baztertzen ditu. Idazle askok azpimarratu dutenez, bizimodu soziala komunikazioa dela indartzera dator teatroaren metafora. Komunikazio hau, bestalde, sinbolismoaren bidez lortzen da, hitz, gorputz-keinu, espazio, denbora, begi eta eskuen bidez sortarazten dena (ikus Perinbanayagam 1985:59).

Burke-rengana itzuliz, azterlari honen bi ideia jaso behar ditugu. Alde batetik, Burke-ren irudituan bizitza, eta ondorioz gizartea bera, drama dela esatekoa da. Burke-k bideratzen duen dramaren paradigma ez dago "balitz bezala" ulerkuntzan oinarrituta, "horixe bera da" abiapuntu hartuta baino. Beste modu batera esanda, drama ez da inongo metaforarik bizimodu sozialak ulertzeko; drama eta bizitza soziala gauza bera dira.

Beste alde batetik, bost dimentsiotan bereizten ditu Burke-k giza ekintzak: eszena, egintza, jokalaria, agentzia eta xedea. Geroxeago, "jarrera" erantsi zien. Gordon-ek honelaxe laburtu du Burke-ren argudioa:

"eszena sozial baten bornuan jazotzen dira ekintzak; eszenarako "egokiena" zer den kontutuan harturik, hots, "jarrera" batekin, jokalaria batek abiatzen du ekintza; eskuratu ahal dituen bide guztiak erabiliz osatzen du jokalaria ekintza; eta ekintzak helburu bati heldu nahi dio" (Gordon 1976: XVIII).

Burke-ren adierazpena, bestalde, esparru epistemologikoan aztertu behar dugu. Bateko, Burke-k darabilen teatroaren kontzepzioa Aristotele-ren izkribuetatik aurrera European zehar zabaldu zena da. Besteko, Burke-ren dramatikotasuna ontologia da, hau da, gizakiek dihardute ekintzen bidez, eta hala eginez, bizitza sozialaren oinarria darakuste. Burke-ren oinarri epistemologiko hauek Goffman-engan aurkitzen ditugu. Dena den, Burke-ren "dramatikotasuna" eta Goffman-en "teatrogintza" hitz ezberdinak dira, arazo ezberdinak aztertu gura dituztenak.

Goffman-ek bere obran zehar bideratu dituen teatrogintzaren analisiak jokalaria sozialek erabilitako komunikazio-tresnak eta teknikak agertarazi nahi ditu. Burke-k dramatikotasunak zerari lotzen dizkio: elkartasun komunikatiboa sortaraz dadin poetek, filosofoek eta antzerki-egileek hautatzen dituzten moduei. Orduan, diskurtsoan usatzen den hizkuntzaren azterketa eta giza iharduera hark daukan eragina ikastea da dramatikotasuna. Goffman-en teatrogintza, aldiz, Burke-ren emaitzak, liburuetan ezezik, gizartean ere suertatzen direla baieztatzen dator.

Goffman-ek teatroaren eta dramaren ulerkuntza zehatz bat, eta ondorioz murriztua, darabilela erakutsi gura dut oraingoan. Helburu honi atxeki asmoz, bi alderdi bereizten ditut. Lehenengoz, beste azterlari batzuk nola elkartu dituzten bizitza soziala eta antzerkiaren metafora aztertuko dugu. Bigarrenez, Goffman-en "bizitza soziala/antzerkia" analogia dela eta, beste idazle batzuk zer esan duten mintzagai izanen dut. Nire xedea hauxe da: Goffman-ek erabilitako teatroaren kontzeptioa mugatua izanik, beronen bitartez agertutako gizartearen eta eguneroko bizitza sozialaren kontzeptioak ere zedaduta datoz.

Antzerkia eta Errealitate Sozialaren Sublimazioa

Soziologo askok esan dute teatroa portaera sozialaren sublimazioa dela. Haien artean George Gurvitch, Jean Duvignaud, A. Paul Hare eta E. Burns ditugu. Sublimazioaren ideia hau Goffman-en lanean ikusten dugu. Hau dela eta, honelaxe definitzen du Goffman-ek antzezkiun soziala: "egoera baten pertzepzio idealizatua" (1959:48). Taulatuaren gaina/bastidorea egin duen bereizketak berak ere kontzeptio hau indartzera dator (1959:107-103).

Gurtvich-en (1956) artikulua interesgarri batean zera itauntzen da: non dago errealitate sozialaren eta antzerkiaren arteko muga? Eta modu honetara saiatzeko da erantzuten. Idealizazioaren, parodiaren edo aldatu nahiaren bidez, egoera sozial batzuren sublimazioa da antzerkia. Para-

doxikoki, teatroa, halaber, gatazka sozialetik ihesbide eta beraien espresabide daiteke. Areago, anbiguotasunaren dialektikan dago preso antzerkia (Gurtvich 1956:76). Goffman-en azterketan, ordea, antzezkiun soziala "consensus-a" da bakar-bakarrik; hau da, egoera soziala parte hartzaile denen artean definitzen da, denak ados daudelarik definizioarekin. Goffman-entzat bizitza soziala sublimazioa da, beste soziologorentzat sublimazioa teatroari soilik dagokiolarik.

Hortaz, Jean Duvignaud-ek esan duenez, benetazko gatazken sublimazioak ezartzen du aldea bizitza sozialaren eta teatroaren artean (1973:87). Berdin hitzegin du A. Paul Hale-k "nahiz eta elementu berberak izan bi egoeratan (bizitzan eta teatroan), teatroak intentsifikatu egiten dituela bizitzakoak" esatean (1985:57). Beste alde batetik, E. Burns-ek dioenez, teatroko agerraldiak balore paradigmaticoak dakartza begibistara, ereduak hain zuzen ere, eguneroko bizimoduan hain erraz atzematen ez direnak.

Bizitzaren eta antzerkiaren artean badago elkartasun nabaria: errolen jokatzeko. Hala ere, giza taldeek, klase sozialek eta gizabanakoek errealitate sozialean jokaturiko paperak eta aktoreenak ez dira natura berdinekoak. Hala balitz, dio Gurtvich-ek (1973-75), aisa konponduko lirarteke klaseetan eta talde antagonikoetan banatzen gaituzten zatiketa sozio-ekonomikotik datozen gatazkarik tragikoenak. Denok dakigu,

jakin ere, taulatuan eta eguneroko bizitzan jokalaria izatea ez direla gauza bera.

Errolaren nozioa da gakoa Goffman-en soziologian. Areago, berak bideraturiko soziologia errolen jokoan dago oinarrituta. Haren hitzetan jarrita: errola ekintzaren eusle eta erakuslea da; errolen jokoa dela medio errealitatea eratu eta esperimentatu egiten da. Gerorxeago ihardunen dugu jarrera soziologiko honi egindako kritizismoaz.

Goffman-en Antzezkizunaren Zabaltasuna

Goffman-ek jaso dituen kritika gehienak arrazoi horrexegatik izan dira: alegia, ez duelako antzezkizunaren kontzeptua ondo testuinguratu. Hau dela eta, Richard Schechner-ek, Goffman-en lana eztabaidatu guran, ekintza sozialak eta antzezkizun kulturalak berez banagarriak direla argudiatu du (1987:7). Goffman-en aurka argudiatu ezezik, hura zirikatatu ere nahi izan du: "bi antzezkizun mota daude: alde batetik Goffman-ek hala izendatzen dituenak, eta bestetik, jeneralean antzezkizuntzat jotzen duguna; haien artean badago izugarritzko aldea" (1986:368). Beraren ustez, bereizketa bat egin behar dugu, segitzen du Schechner-ek. Egoera sozial batzutan parte hartzaileek badakite, jakin ere, antzezkizun baten aurrean daudela. Hauek antzezkizun-klase bat osatzen dute. Bestetzutan, antzeppen baten aurrean dauden ala ez daudenari buruz,

parte hartzaileek ez dute antzezkizun-kontzientziarik pertzibitzen, edo ez daukate egoera horren ezaguera argirik. Hauek bestelako antzeppenak dira (1986:368).

Aristotele-ren "Sinistaraztea"

Aristotele-k zuen dramaren kontzepzioa Goffman-en "egoeraren definizioan" eta "buruz buruko elkarrekintzan" ikus daiteke: "sinistaraztea", alegia.

Sinistaraztea, haatik, ez da teatro-era guztien helmuga. Niall W. Slater-ek, adibidez, baieztatu du "teatro klasikoaren kontzepzioek ilusioa eta irudikapena hartu dituztela artistaren xedetzat" (1985:10). Eta eransten dio badela horren atzetik mendebaldeak teatroari buruz daukan teorizazio-era bat. Aristotele-ren mimesiaren teoria dena. Mendebaldeko antzerki-era guztiak Aristotele-ren biderei ez darraizkiola erakutsi asmoz, Slater-ek Ibsen-en eta Sofokle-ren teatroak dakarzkigu adibidetzat. Honelaxe irakurtzen dugu Slater-en liburuan:

Ibsen-en teatroaren oinarria ilusorioa da. Ikusentzulegoari beronek taulatuaren gainean aurkitzen duena sinistarazi nahi dio. Sofokle-ren teatroaren oinarria, aldiz, ez-ilusorioa da. Ikusentzulegoak taulatuan agertua sinis dezan ez du nahi sekulan ere sortarazi (1985;10).

Goffman-en dramaren kontzepzioa dela eta, Richard Schechner-ek honela abiatu du bere kritika:

Teatro euro-amerikarraren konbentzioei atxekiz gero, "jokatzeari" sinistaraztea dario, eta gezur esatea ere bai [...] Goffman-ek ere parekatze berdina egiten du eguneroko bizitzaren jokoak xixkariaren edo antzekoen jokoarekin identifikatzen duenean, zeren eta xixkariak, Goffman-en eguneroko jokalaria bezalaxe, erakusten duen "aurrea" eta daukan "benetazko" nortasuna izugarri ezberdinak bait dira. Zeratik dator jokatzearen ulerpen hau: errealitateen hierarkiak daudela argudiatzen duen ideia platonikotik, errealitateen benetazkoena esperientziatik urrutien dagoena dionetik; eta artea imitazio zein bizitzaren esperientzien esentzializazioa dela dioen ideia aristotelikotik. Baina teatro hinduaren konbentzioak kontutan harturik, jokatzea gezurra eta egia da, biak batera, zeren eta jokatzea ilusio alaitsua bait da (1985: 96-97).

Azterlari hauen bidez ikusi dugunez, antzerkia eta bizitza soziala parekatzea ez da erraz egin ahal den konturik. Eta Goffman-ek ondorapenak bizimodu sozialen ezaugarri asko eta garrantzitsuak alboratzen ditu. Clifford Geertz antropologoak honela adierazi dituenak:

Gatazka sozialari, desbideraketari, nagusigoari, sexu-errolei, elizkizunei, status-desberdintasunei eta giza onarpenaren behar soilari harrera berbera ematen zaie. Estrategien erretilua baino ez da (1983:25).

Orain artekoan, bizitza/antzerkia analogia hau espazialki ikasi dugu.

Denboraren koordenadak ere izugarrizko inportantzia du giza bizitza interpretatzerakoan. Bernard Beckerman-ek dioenez, teatroa dugu "noiz eta, denboran edota espazioan isolatuta, gizabanako batek edo gehiagok beste bati edo beste batzuri aurkezten dizkiotenean beren buruak" (1976:7). Antzerkia beraz, fisikoki, eszenatokira eramandako antzezkiuna ezezik, denbora berezko antzezkiuna da. Eguneroko topaketan, teatroan bezala, denbora eta espazioa erabakiorrak dira. Eta hala dela erakutsi digute Pierre Bourdieu-ren (1972) eta Anthony Giddens-en (1984) soziologiek. Denbora, horratio, Goffman-en "norberaren aurkezpenaren" azterketatik at dago.

Goffman-en soziologia: zenbait kritika funtsezko

Bi arlotan zatitu dut artikulua mamia. Alde batetik, teatroaren eta bizitza sozialaren harremanak aztertu ditugu laburki. Beste aldetik, harreman horiek *The Presentation of Self in Everyday Life* liburuan nola datozen elaboratuta ikusi dugu. Geroago zera esan dugu: Goffman-en antzerkiaren kontzeptioa mende-baldeko teatro-era batean dago oinarrituta eta kontzeptio beronek bideratzen du bere idazlanetan zehar aurkezten duen bizitza sozialaren azterketa. Ondorioz, giza bizitza eta gizartea modu zehatz eta mugatu baten bidez agertarazi ditu. Goffman-en soziologiak egiten duen mugimenduak eta mugimendu honen ondorenek –hots, teatroaren ulerpen

berezko baten ezaugarriak gizarteko bizitzara hedatzeak eta hedatzearen ondorenek—kritika latzak jaso dituzte.

Saltsan sartu baino lehen, Goffman-en aurreritzi soziologikoak gogoratzea dugu komenigarri. Bost ideia dira funtsezkoak. Lehenengoa, paperak jokatzeari oinarritzen den gizarte baten irudia kreatu eta zabaldu egin du: alegia, gizartea antzezkiuna da, gizabanakoak egoera guztietan errolak jokatzeko dituzte. Bigarrena, antzezkiuna egoera bat definitzea da, "taulatuaren" gainean gertatzen dena, non antzezpeneren ezaugarriak—sinestaraztea, engainoa, ilusioa eta irudi idealizatua, alegia—burutzen bait dira. Hirugarrena, errealtateen hierarkia bat sortzen da: agertokiko errealtate soziala, buruz buruko elkarrekintza, elkarrekiko adostasunez eratua; eta agertokiaz kanpoko, taulatuarena kontrajartzen ohi duena. Laugarrena, azterketa soziala "egoeren gramatika" da. Hau da, Goffman-ek aztertzen duena zera da: buruz buruko antzezkiun sozial baten arrakasta ona suerta dadin, gizabanakoek zer antzezelementu eta teknika erabiltzen dituzten. Eta bostgarrena, antzezkiun soziala espaziala da. Denboraren eraginik ez dago.

Kritika gehienek arestioko bost puntuak jo dituzte. Elkarrekintzaren Eskolako errolen jokoak eztabaidatu nahian, P.D. Ashworth-ek, esate baterako, zera idatzi du: Goffman-en gizartearen funtzionamendua zinismoan eta machiavellismoan dago oinarrituta (1979:14). Goulder urrutirago doa, Goffman-ek hartzen

duen adierazpide ideologikoa dela esanez. Barry Smart-ek Goulder-en kritikari lerro batzu eskaini dizkio bere idazlan batean:

Goffman-en mikrosoziologiaren errol-teoriaz Goulder-ek dagien kritikak zera seinatzen du, Goffman-en ardura ez dela aldaketa soziala ezta instituzioen egiturak ere [...] eta "errolaren distantziak" eskaintzen du egitura sozial ahaltsutik babesa (Smart 1976:16).

Goulder-ek egiten duen kritika laburbilduz, Goffman-en soziologia adaptazioa da, gizarteko botereak eta desoreka ezkututzen dituena.

Goffman-en azterketaren lehenengo batasun soziala, ikasten duen bakarra, "buruz buruko egoera" da. Hau oso zuzena ez dela leporatu diote askok. Ashworth-ek honela egiten dio kontra: "egoeraren definizioak, egoera suertatzen deneko ingurugiro sozial zabalean du esangura, azken batez (1976:32). Egoera sozialek arazo zabalak erakusten dituzte, bapateko eta bertan bertako ekarrekintzen mugez gaindi doazenak, zeren eta egitura ekonomikoen, instituzioen, ibilera sozialen, politikoen, eta botere-harremanen eragina handia bait da haietan. Anthony Giddens-ek (1984) esan duenez, edozein egoera sozialen aurrean "motibazioa" eta "kontestualizazioa" kontutan hartzekoak ditu azterlariak nahitanahiez.

Amai dezadan lantxo hau Pierre Bordieu-ren aipu batekin: "aldia

abolitzea estrategia ere abolitzea da" (1972:6). Hau da, "presentziaren kontzeptua –edo hobeto esanda, presentziaren eta ausentziaren elkartasuna– haren lekukotasunean eta, baita ere, haren denboratasunean behar dugu aztertu" (Giddens 1984:118).

Laburbilduz

Goffman-en lanaren zenbait ezaugarri aipatu ditut artikulu honetan. Goffman-en obra ulertzeko, zientzia sozialetan haren tokia zein den jakitea komenigarria da. Alde batetik Chicago-ko Eskola-koekin harremandua ibili da. Beste alde batetik, "elkarrekintza sinbolikoa" deritzan soziologia-eraren barruan ihardun du. Hala ere, jatorrizko azterbideak erabili zituelako aldendu egin zen adiskide akademiko haiengandik. Hortaz, berak aurreratu zuen "adierazpide dramaturgikoa" dela medio ezagutzen dugu bere obra zientzia sozialetan. Adierazpide honen ezaugarriak, bestalde, *The Presentation of Self in Everyday Life* liburuan ditu ondo definituak. Idazlan honen ardura buruz buruko topaketak eta elkarrekintzak dira. Bereziki, egoera bat definitzeko gizabana-koek erabiltzen dituen teknikak ikasi nahi ditu. Honez gain, egoerak badu esangura elkarrekintzan ari direnentzat, aplikatzen den bornuak burutua hain zuzen ere. *Frame Analysis* liburuan aztertzen du Goffman-ek esanguraren subjektua.

Artikulu honen xedea ez da izan egoeraren definizioaz edo esanguraz ihardutea, ordea. Ezta buruz buruko elkarrekintzetan erabiltzen diren antzez-teknikak ere. Nire xedea bestelakoa izan da: Goffman-en teatroaren kontzepzioa eta kontzepzio honek hedatu duen gizartearen irudia. Zentzu honetan, Goffman, bateko, mendebaldeko antzerki-era kontzepzio mugatu batez baliatu dela, eta, besteko, kontzepzio horren ezaugarriak zabaldu dituela gizartera, erakustea izan dut helmugatzat. Ikusi dugunez, Goffman-en lanari darion gizarte-irudiak ez dauka, akademikoki mintzatuz, gizarteko gorabeherak beren orokortasunean adierazteko behar den indar analitikoa. Izan ere, soziologiak luze eztabaidatua izan da gai hau. Artikulu honek, Goffman-en soziologiak dakartzan arazoak gainditu baino, eztabaidan gako diren gai funtsezkoenak honatu nahi izan ditu.

Bibliografia

- ASHWORTH, PD; *Social Interaction and Consciousness*, John Wiley & Sons, Ltd., 1979.
- BECKERMAN, B; "Definitions-Theater" in *Drama in Life, The Uses of Communication in Society*, Hasting House Publishers, New York, 1976.
- BOURDIEU, P; *Outline of a Theory of Practice*, Cambridge University Press, Cambridge, 1972.
- BURKE, K; *A Grammar of Motives and a Rhetoric of Motives.*, World Publishing, Cleveland, 1962.
- BURKE, K; "Dramatism" in *The International Encyclopedica of the Social Sciences*, 445-451, 1968.
- BURNS, E. and BURNS T. (eds.); *Sociology of Literature & Drama*, Penguin Modern Sociology Readings, 1973.
- BURNS, E; 1972 "Conventions of Performance" in *Sociology of Literature & Drama*, Penguin Modern Sociology Readings, 1973.
- DUVIGNAUD, J; 1965 "The Theatre in Society: Society in the Theatre", in *Sociology of Literature & Drama*, Penguin Modern Sociology Readings, 1973.
- GEERTZ, C; *Local Knowledge*, Basic Books, Inc., New York, 1983.
- GIDDENS, A; *The Constitution of Society*, University of California Press, Berkeley, 1984.
- GOFFMAN, E; *The Presentation of Self in Everyday Life*, Doubleday, Garden City, N.Y., 1959.
- GOFFMAN, E; *Frame Analysis*, Mass: Harvard University Press, Cambridge, 1974.
- GOULDER, A; *The Coming Crisis in Western Sociology*, Basic Books, New York, 1970.

GORDON, G. N. (ed.); *Drama in Life. The Uses of Communication in Society*, Hasting House Publishers, New York, 1976.

GURVITCH, G; 1955, "The Sociology of the Theatre" in *Sociology of Literature & Drama*, Penguin Modern Sociology Readings, 1973.

HARE, A. P; *Social Interaction as Drama*, Sage Publications, London, 1985.

LAUER, R. and HANDEL W. H ; *Social Psychology. The Theory and Application of Symbolic Interactionism*, Houghton Mifflin Company, Boston, 1977.

MACALOON, J. J. (ed.); *Rite, Drama, Festival, Spectacle*, Institute for the Study of Human Issues, Inc, Philadelphia, 1984.

PERINBANAYAGAM, R.S; *Sginifying Acts*, Southern Illinois University Press, 1985.

SCHECHNER, R; *Between Theater and Anthropology*, University of Pennsylvania Press, Philadelphia, 1985.

SCHECHNER, R; "Magnitudes of Performance" in *Anthropology of Experience*, Victor Turner and Eduard M. Bruner (eds.), University of Illinois Press, 1986.

SLATER, N. W; *Plautus in Performance*, Princeton University Press, 1985.

SMART, B; *Sociology, Phenomenology and Marxian Analysis*, Routledge and Kegan Paul, London, 1976.